

HAMABI SEGUNDO, BIZITZA BAT

Izar Azpiroz Irigorri, 15 urte

Oiartzun

Din! Gauerdia ongi etorria eskaintzen zion kantu monotono eta soila abesten hasi berriak ditun herriko eliza zaharreko kanpai astunak. Iluntasunak argi izpi oro aho batez jaten din kale guztia mamuak diruditen itzal hotzekin biluztuz. Ilargiaren argi ahula zeruko sabaitik ezabatzen duten lainoen adina altuerako beren prezioa ere ezin jasan zezaketen hire takoi findun zapatek, eta orpoak marruez ezin ase sentitu ditunenez kale bazterrera jausi ditun birritan pentsatzeko asti barik. Hire bizitzako azken lasterketa botatzera hoa diru gehien xahututako oinetako pare estimatuenak iraganean murgildu hauenean.

Hamaika urteko umezurtza hintzen emakumeontzako urreak berak baino balio handiago daukan hileroko lehen odol jariora beheratu zitzaizkanean. Ia ito hintzen amak emakume errendatu hintzela eta zoriondu hinduenean barnean sortu zitzaizkian tximista eta trumoiaren artean. Hormona orok beti harrotzen duen itsaso astindua baretu ostean, heldu sentitzen hintzela eta amaren takoi findun zapatak

jantzi hituen lehen aldiz. Bat-batean presa ikaragarria piztu zitzainan aurkitu berri huen emakume hura azaleratzen, eta haurtzaroa galduko huen heldu bihurtzarren erregai gehiegi isuriko huelako nerabezeroaren erreketan.

Oraingoan ez ditun takoi findun zapatak oinazeren eragile. Heldu izan nahi hueneko oroimenak ihes egin dituen usoak bailiran, oin azpian sartu berritako beiraren tormentuak kaiolatik bidaliak baitituen espazio faltan. Gelditu eta hatsa sakon hartzeko denborarik ez dagoenez, hala nola konpondu haiz erdi hautsitako hire azkazalez baliatuz hanka azpiko deabrutxo ateratzeko lasterketa eten gabe.

Ez dun segundo bakar baten betarik izan berriz ere hire gomuten itsaso zabalean urperatzeko. Arkitekto batek bere arkuak marrazten dituen zehaztasunez leuntzen eta zaintzen hituen orain urrututa daramatzen hatzetako azkazalak. Ordu ugari gastatzen hituen ispiluari so, gainean heraman xarma guztia tentatzen praktikatzuz, gero kaletik gorputzaren mugimendu erakargarri batzuen laguntzaz teknika berarekin inguruko gazte guztien begiradak lapurtzeko. Betileak kartzelako burdin hodiak bezain gogor eta sendoak bihurtzen dituen errimel lodi-lodia, begirada lerdinenak sortzeko gauari lapurtutako iluntasunez marrazten duen arkatz beltza, argi izpi batek ur tanta bat zeharkatzen duenean sortzen diren milioika koloreren nahasketa itsasten duten begitako itzalak, Ozeaniako itsaso bareetako berezko kresal distiratsua gomaztatzen duen ezpainetako gloss eranskorra, haur baten masail

gorriak opatzen dituen hauts arrosak... Hamalau udaberri soilik heuzkan begizaturik horrelako armekin gudu guztietan garaile irteten hintzenean. Orduan irribarre txoro eta laztan goxoak soilik eskaintzen hizkion sari handiegia hintzela sinistartzten hion ikuslegoari.

Din! Azkazalak begiz jo ditunanean konturatu haiz beira zatiak ez duela hire gainetik alde egin nahi. Irribarre batek hartu din lekua arnasestuka ezin itxi daraman ahoan. Hainbat urtetako tabakoa biriketean burututako ekaitz beltza dun oxigeno faltaren errudun, eta orduantxe ohartu haiz ez daramanala ezer erretzeko gainean. Arraroa, hi, jada hiru lau bat urte baitira bi kartoi erretzen ditunala egun oro eta bitxia dun gau osoan bakar bat ere faltan ez botatzea. Baina oraintxe konturatu haiz heure gorputza aurretiaz zebilela lasaigarri eske eta honen demandan hartu dunala dosia, handiegia izan ere, duela bi urte injektatutako gaindosiaren parekoa. Nahiz eta hire ezpainez ez duten piti bakar bat ere besarkatzeko aukerarik izan, hire zainetako odola irakiten daukan duela ordu erdi barneratu dunan hauts zuriari esker.

Inoiz ez haizela gutxirekin asetzen den horietako bat aitortu behar izan dun. Beti gauza berrien bila dabilen barneko arra bere abiaduran hazten utzi izan bahu, oraindino sagar osoa jan barik edukiko zukeela ohartu haiz. Hire lehen porroaren esperientzia ere, beste drogen lehen dastatzea lez, horrelakoa izan zunan: txikitutako Holandako landere preziatu hartaz eginiko kanutoa barnean herama-

tzan indar eta gogo guztiekin zurruputzen huen, keari gorputzetik irteteko aukera eman barik hurrengo kalada sakon eta luzea hartzen huelarik. Ez huen ez belar kotizatu haren hauspo alerik utzi galtzen airean, ez hengoan hire paradisuan sartu gabe geratzeko prest eta hala geratu hintzen: gorputza trapu bat lurrera erortzen den legez bankuan lekaturik eta begiak, bakoitza tona bana altxatzeko harri-jasotzaile, ezin zabaldua mantendurik.

Din! Kanpaien erresonantzia soilak hodei beltzetatik irtenarazi haute. Ezin gorde dun gorputza indartsu eta garbi edukitzearen falta. Alkoholaz nahiz tabakoaren ke beltzez blaitzen hasi hintzenezan hire kirolari gorputz hura, ez zitzainan burutik igaro ere horrela amaituko huenik. Atleta galanta egina hengoan garai hartan, bai: zuntz hutsez eraturako gihar guztiek osatzen zuten organismoa haizea bera ebaki nahian ikustea soilik izugarritzko ikuskaria zunan, baina jaietan drogen laguntzarik gabe ezin gozatuak kostu handia ekarri zinan: ikusmena zuhaitzak ez bereizteraino lainotzen zinaten, kontsumo mugagabe haiek zuntzen egitura soila koipeztatzen zinaten, kirolari azkarrenaren gorpua gazte lodikote batenaz trukatur.

Din! Hainbeste estimatzen huen fisikoa bosgarren tonua eman-berri duen kanpaia baino pisutsuago ikusten huenez jateari laga hion. Bitaminak, proteinak, koipeak... ikastolan bizitzeko ezinbestekoak direla erakutsitako elementuak bata bestearen atzetik erre hituen, existitzen ez ziren koipe kontzentrazioak ezabatu gura hintzela eta. Erlikebaren

gorabeheren antzera nabarmendutako atzealdea, biragune luze eta leunez marraztutako izter luze eta finak, begirada guztiak erakartzen zituen zibor ñimiñoa, zulotxo hau begi-bistan baratzeko soineko elastiko estuak igoarazten zituen esfera pare perfektua... Hire fisiko bikaina osatzen zuten lerro biratu guztiak goma batekin ezabatu eta erregela baten laguntzaz marraztutako beste zuzen batzuek ordezkatu hituen. Emakumezkoa hintzenaren arrasto guztiak urratutakoan soilik jabetu hintzen koipe apur bat izatea beharrezkoa dugula bizidun orok, eta ez organismoarengatik bakarrik, aspaldidanik antzematen baihituen energia eskasarengatik buruaren joan-etorriak.

Din! Kanpaiek seigarren astinaldi lehorra jaurti dinat zuzen belarrietara. Kupre eta burdinaren arteko elkar-jotzeak airean sortutako uhinek bizien mundura ekarri haute berriz ere. Jada berrogeita hamar metro luze utzi ditun atzean, baina badakin ez dela nahikoa. Oinek batak bestearen jarraian gorputza aurrera bidaltzeari utzi barik, ezker eskua hire aurpegi osoan banatuta dauzkanen bederatzi pirtzinetatik lau kokatzen diren belarrira hurbildu dun, haizearen ulua ere ezin sartu daitekeen atea irekitzeko.

Din! Urrena egotzitako tonu sarkorrek ez hau oharkabean hartu eta heure pentsamenduen itsaso zabaletik atera beharrean, itsas ondoraino eraman hau soinuaren uhina tinpanoraino ez iristearen sentipenak...

“Aitortzen dut, hasieran jolas soil bat zen, haragiaren gosea, mila mozkorren azkena...”, Latzen euskal rock-taldearen Laztana kantuaeren hitz esanguratsuak banan-banan sartzen zitzaizkinan belarrietatik Arkaitzek bere beso sendoekin gerritik helzen hinduen bitartean. Ez hituen hamar minutu ere behar izan kalimotxo hotzez betetako katxi pareta hire eztarrian barrena hustutzeko, eta horren efektu huen hire gorputzaren oreka falta. Arkaitz pareko zegoan, baina ez lurrera amiltzeko adina, hire kasu. Bion eskuak gerrian ez ezik, atal ezberdinetan ferekak opatzen pausatzen zenbiltzatela, hitz trukaketa barik alde egin zenuten jendearen begiradak iristen ez ziren txoko batera, bion laztan egarri itsuak gidatuta. Hura izan zen hire benetako lehenengo rolloa: bion ezpainak elkar gogoz besarkatuz, gerriz gorako gorputz-adarrak bikoteak soinean zeneramatzen elastiko, praka nahiz poloak ahal bezain azkarren erantzeari ekin zenioten, aste osoan urdaila hutsik zeneramaten hartzen indarrez. Ezpainak bestearen aho ertzak utzi eta beste bide batzuen bila, bi gorputz erdi biluzi elkarri estu besarkatuta, fereka eta laztanek xarma hauts apur bat lekutzen zutelarik... Hamasei urteren pisua heramala maitatu huen arima eta gorputzez lehen aldiz.

Din! Baina Arkaitzek bere lehen esperientzia beste gorputz batekin inauguratua zeukala erreparatu huenean, alkoholaren eragina pasatzen hasi zitzainanean aurki, lagunengana jo huen ezin gordetako minak bideratutako aurpegi zurbileko erreka-txoak lehortu barik. Hire bihozminetan ito beharre-

an, ingurukoek eskura zeuzkaten botila, katxi eta edalontzi guztietako edukiak hautatu hituen hatsa galtzeko, koma etiliko gogor batean sartu hintzen arte.

Din! Hire organismoa zeharo astindu zuen leherketa hartatik bi egunsenti beranduago esnatu hintzen, maindire zurien faltarik ez zegoen ospitaleko gela batean. Poloetako izotz zuriaz margotutako eraikin hotzean ezagutu huen hire zorigaiztoko bizitzari bira emango zion printzea eta haren enkantamendua. Bihotz minak sendatzeko ezin medikamentu hobea aurkitu huen: are eta droga kaltegarriagoetan murgiltzea: heroina izan zunan ordezkari preziatua. Zentzua galdu arte murgiltzen hasi hintzen hauts magikoen eta musika altuen nahasteetan, hogeita lau ordu luzez irekita ziharduten diskotekak zirelarik hire hautagai. Inguruetako hauts sareak kontrolatzen zituen mutila hartu huen bikote (hire bihozminen beste erremedioa): Mikel Ttipia. Izen komikoa gaztearena, ez baitzeukan neurri txikiko ezer ere: laurogei kiloko gorputz lodi eta astuna, diru beltzaren kantitate kalkulaezina... Baina biok elkartzen zintuzten harremana sexuzkoa soilik zenez, zentzurik gabeko bide hura utzi huen hilabete baten buruan: ez Mikel eta ez heroinak ez zeukaten lekurik hire bizitzan.

Din! Hamargarren astindua zaporatzen dik kanpaiak bere mihi mardularekin. Hik ere hamar mutil dastatu behar izan hituen maitasuna ez dela laztan, muxu eta hitz goxoez soilik osatzen den errezeta ulertzeko. Jada mutilaren besoetara jotze hura auto-

matikoki egiten huen gauza zenez eta bihotza samindu, ebaki eta apurtu daitekeen modu guztietako zauriak jasandakoa heukanez, oraingo honetan ez hintzen ainguraz hondoratutako itsas hondo batean sentitu. Eskarmentuz irauli zitzainan burua eta garbigailu indartsuenaz ezin kita daitezkeen bizitzako orban oro ezabatzea erabaki huen, galzorik betetako bizibidea saihestu eta pauso zuzenak emateko aukera ematen zinan bigarrena hautatuz: geratzen zitzainan azken hauts-dosia oroitzapen ilunez betetako kutxa batean giltzapetu huen, drogetan bildutako bizimodu haren amaiera gisa.

Din! Gauerdia ia gainean dun: dantzaldian beirazko zapatatxoa galdu zuen Errauskine dohakabearen antzera gaineko magia guztiak galtzen ari haiz. Duela bi ordu Joxeren taberna zaharrea bost euroko billetearen usoz egindako kanutoarekin sudurzu-loatatik sartutako hire atzeneko heroina dosiak erakitako erreinu zoragarriaren azken blokeak jausten ari dira. Brasilgo oihanetan zuhaitz enbor-luzeekin dantzan ari zen txoria izatetik, amaierarik gabeko itzalez osatutako baso batean azeri batez jarraitutako erbi izatera iragan haiz. Hire gorputzak hilabete luzeetan tabakoaren pozoia soilik irentsi duenean, hire hatsaren ohiko adiskide ke beltza hauts zurien-gatik ordezkaturakoan, gaindosia izan dun, baina hire nerbio asinduak baretzeko beste hautabiderik ez dun topatu. Izan ere bezperan, polizia-etxean izandako erreten-aldian, hire maitale huen Mikel, herriko hauts-sarearen buru zela aitortu beharrean aurkitu haiz eta haren anaiak salatiaren izenarekin

eman duenean, hire nerbio sistema osoa dantzan jarri dun. Baina hautsek beren zeregina bete duen lez, kartzelaratutakoaren anaiak hirekin eman din, izan ere bera dun eskuan errebolber bat duela, hire lasterketa errukarria zaintzen ari dena.

Pum! Pum! PUM! Kupre eraikinaren azken lazta-nak eragindako uhinak hire belarrira iritsi aurretik zeharkatu dinate sorbalda hiru burdin hiltzeek, eta gomuta artean bildu haiz gorputz eta arima...

Aspaldiko partez, agur bero bat, Ane.

Gutun hau irekitzen dunanerako, ospitalean ego-nik, harrapaketatik bizirik irten haizela ohartuko haiz. Jokin anaia Mikelekin zegok burdin artean, hilketa saiakera lepoan duela.

Urte ugari igaro ditun gure bizitzak bide ezberdi-nak hartu zituztenetik. Argi dakin hik, nik adina, erregai gehiegi isuri huen leherketa hartan (alko-holaren nahasteak koma batean sartu hinduen) azken haria galdu zuela gure harremanak: pertsona heldu bihurtzeko denon erregaia da denbora, asko-tan gauza berriekin irabiatu behar dena erreket-a gauzatzeko. Baina hik denbora gutxian sartu hituen-gauza berriak, esan dinadan bezala, erregai gehiegi isuri huen haurtzaroz gozatu gabe heldu bihurtze-ko ideia itsu hartan. Baina emakume izateko gogo hura, drogen munduan zeharo murgiltzeko pauso bat besterik ez zunan izan (izan ere, konturatua izango haiz mundu horretan sartzea izan zunala orain aurkitzen haizen egoeraren kausa) Bazekinat bide hau ere atzean utzi dunala, eta horregatik uzten dinat gutun honekin batera helbide bat: nahiz

eta denbora asko igaro, hire ahizpa zaharrena naitzen honetan ene bihotzak ez ditin hirearen taupadak galdu, ahizpa txikiaren maitasun sentimenduak ahantzi. Ez haut nahi ez dunan norabide baterantz zuzenduko, baina hire senak nirearen arrastu berak baldin baditin, badakin nora jo.

Maite haut.